

ESTIBAUS

Boletín de ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAren Buletina nº 5 zbk. abril 1997ko apirila

"...aiuntados en el campo de Estibaús según que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar..." (Altza, 1390)

San Markos eta kantineko kontu zarrak berritzea Joxe ERAUSKIN

Urte aietan San Markosko jaiak apirillaren 25ean ta ondorengo igandean ospatzen ziran pestak. Egualdi ona gertatzen bazan jende askotxo inguratzen zan kantina orretara. Bi egun oyetan etzan falta izaten erroskillak ta goxokiak. Festa alaitzeko ta anak mugitzeko gogua zeukanentzat etziran faltako Eugenio Etxeberria ta bere laguna. Eugeniok jotzen zuan txistua ta tanborilla, ta bere lagunak jotzen zuan tanborra. Orduak pasa ta pasa ta inoiz etziran asperten.

Alaitasunik etzan falta izaten ayen inguruan, zar ta gazte, neska ta mutil, erromes zale guztiak irrintzika. Aurrek ere izaten zuten beren pozgarria. Garai aietan oitura zan bere amandriak oparitzia egun orretako tarta edo San Markosen opilla deitzen zaiona, ta egun ona azaltzen bazan, opilla ori jatera igotzen ziran San Markosera. Orrela ospatzen ziran garai aietan mendiko festak.


1936ko urtetik gutxi gora bera ezagutu nuen kantineko familia ta ango bizi lagunak Joxe eta Klaudia senar emazteak ta beren seme-alabak. Bizi bidea, Joxek arrobian lan egiten zun, eta emazteak zaintzen zuan kantina, ardo, sagardo, bokadillo ta beste edariak salduaz. Baita ere bazituzten animaliak beiak,

auntzak, olloak, ta astoa ere, danak barrutian libre. Andik urte batzuetara famili guzia juantziran bizitzera Pasai Antxora, an ere tabernarekin segitu zuten, bere izena Bar Ongi Etorri. Bañan Joxek bere lanean jarraitu zuen arrobian.

Gero, San Markosko kantina orretara, Iturriburuko baserriko anai arrebak etorri ziran, Joxe ta Balentina Giraldo. Auen baserria arkitzen da San Markosko egalean Zamalbide auzoan. Oyek zaindu zuten urte batzuetan. Gero,

Balentina ezkondukoan, ortik aldegin zuan ta Joxe bakarrik gelditu zan kantinan. Bera juaten zan lanera ta, illunabarretan eta jai egunetan, tabernako lanak. Orrela bizitu zan urte batzuetan, gero bakardadian il arte.

Ondorenian beste bat oyartzuarra, sala edo ganadu batzukin or izandu zan, gau batez ganaduak eta kantina denak bertan kizkali ziran. Au izantzan denen bukaera.




Las opillas que las madrinas según la tradición deben regalar a sus ahijados solteros el día de San Marcos tiene su origen más probable en las empanadas y tortas que antiguamente se acostumbraba llevar como alimento a la romería. (Foto: Romería de San Marcos en la Cantina. de Félix Iranzo)

Una hidalguía altzatarra

Juan Carlos MORA

Entre las tareas que se llevan a cabo dentro de Altzako Historia Mintegia, una es la de recuperar documentación referente al pasado altzatarra. Dentro de esta labor merece la pena destacarse un expediente de hidalguía que ha pasado a formar parte de nuestra colección documental recientemente. Se trata de la petición de hidalguía y su posterior tramitación de Juan de Chipres, vecino de la villa de Santa Cruz de Cestona en el año 1651, quien solicitó le fuera reconocida la misma. El interés por conseguir estos certificados de filiación era evidente, pues tras su aprobación, realizada a través de un proceso legal bastante costoso para quien lo solicitara, el individuo en cuestión podía demostrar su origen proveniente de solar conocido y su limpieza de sangre, requisitos ambos indispensables para adquirir la categoría vecinal y poder desempeñar cargos municipales, entre otras ventajas sociopolíticas que acompañaban a su reconocimiento.

En este caso en concreto, Juan de Chipres presenta a lo largo de un voluminoso expediente diferentes testigos que avalan ese origen al que anteriormente hemos aludido, y que como puede deducirse a través de su apellido, deviene de la casa-solar de Txipres en Altza, tal y como queda claro a lo largo del proceso, consiguiendo finalmente que le sea reconocida la hidalguía solicitada.*



Distintas Asociaciones de vecinos y grupos de tiempo libre de Altza han organizado varias excursiones guiadas bajo el título “CAMINO DE LAU-HAIZETA / LAU-HAIZETARA TTAPA-TTAPA” con el objetivo de conocer más a fondo los puntos de mayor interés del futuro parque. Las excursiones que quedan por realizar son tres: una el 27 de abril a San Marcos coincidiendo con la romería, otra a Ventas de Astigarraga el 4 de Mayo y, por último, otra al fuerte de Ametzagaina el 18 de mayo. Todas las excursiones tienen como punto de partida el merendero Lau-Haizeta a las 10 h. de la mañana.*

Beka

*“Economía y Sociedad en Altza durante el Antiguo Régimen” izenburua daukan proiektua izan da aurtengo “Altza ikertzeko dirulaguntza”- ren irabazlea. Ikerketa proiektu hau, M^o Rosario Roquero Ussia historialariak aurkeztu duena, irailerako burutua egongo da. Aurrekoan egin genuen bezala, hitzaldi batean aurkeztuko da eta, modurik badugu, argitaratzen ere saiatuko gara. Aurtengo dirulaguntza 150.000 pezetakoa da eta aurrekoan bezalaxe KUTXA eta Casaresen laguntza izan ditugu.**

Ibilaldia Altzan barrena

*Altzako talde euskaltzaleok aurtur ere Altzako Euskal Jaiak antolatuta ditugu. Egitasmoan, besteak beste, ibilaldi polita egiteko parada eskaini dugu, udaletxetik San Markora doana hain zuzen ere. Ibilbidean zortzi interesgune edo etapa seinalatu ditugu eta bakoitzean txartel bat jarri leku horren notizia emanaz. Txartel horiek galtzeko arriskua dutelako eta eskueran izateko interesgarriak izan daitezkelako ESTIBAUSekin batera interesgune horien fitxak banatzea pentsatu dugu. Ondo ibili!**

La presentación del número cuatro de **HAUTSA KENDUZ** que en principio estaba prevista para este mes se ha visto pospuesta hasta el próximo mes de junio.

*Bartolo Ayerbe, Ubegiko aitona eta idazlea, aurreko otsailean zendu zen. Galdu dugu zer kontatu zeukan gizon gogotsua, bere zahartzaroan lehengo kontuak bi liburutan idatziak uzteko kemena izan duena. Horra hor gure omenaldia.**

1980. urteko sasoi hartan, Arantzazutik Bilbora egin zen KORRIKA hartatik gaurko egunera, Euskal Herria zein altza aldean kontu ugari gertatu da; hor ditugu Euskal Herria mailan jakin berri ditugun datu soziolinguistikoak, baita Donostiari dagozkionak ere. Hauetatik, argi eta garbi ondoriozta daiteke hizkuntz politika egoki baten beharra zein beharrezkoa den; sail honetan hezkuntzak zein helduen euskalduntze alfabetatzeak euskalduntzearen alorrean emaniko emaitza "urriegia".

KORRIKaz ari garelarik, Altzari dagokionez, hamargarrena izango dugu oraingoan datorkiguna. Duela hamazazpi bat urte egin zen hartatik antolakuntza mailan hainbat aldaketa ere burutu da. Altzatarren laguntza ezinbestekoa izan bada ere,

honelako maratoi baten antolakuntzan esan beharra dago, elkarkidetz handiagoa dela urtez urte. Honen haritik ezin dugu alde batera utzi azken urteotan, burutzen ari diren Euskal Jaiak, Altzan KORRIKArekin bat egiten duten hainbat ekintza.

Urtetik urtera, altzatarrei eskaintzen zaien egitaraua zabalagoa eta oparoagoa da. Beraz, oso funtzezkoa izan da elkarlana Altzan; batetik Donostiako auzorik erdaldunena dugulako Siadokok buruturiko inkestaren arabera eta bestetik, honen aurrean altzatarren elkarlan eta lanerako borondatea izugarria izan delako.

Euskal maratoi honek beraz, herria eta hizkuntza biak batera doazela azaldu nahi die altzatarrei, eta maila honetan haurren euskalduntzaren garrantziaz ezezik

helduen euskalduntzeak ere duena.

Aurrera begira egin beharreko lana izugarria dela badakigu; hau hasera besterik ez da, hala ere pausoka-pausoka herri honen euskalduntzean itxaropen guztiak ditugu. Horretarako ezinbestekoa da, herri dinamika eta elkarlana Altza zein Euskal Herri osoan. Horretarako lehen urratsa emana dago.

"Euskal Herria Korrika" lelopean, berriro gure Altzatik euskal maratoiaren edizio berri bat iragango da hemendik gutxira. Altzatarrok bertan izango gara, euskararen aldeko borrokan laguntza txikia emanez eta euskalgintzan aurrera jarraitzeko asmo eta borondate finkoaz. Horregatik, datozen urteak probetxuzkoak izango direlakoan inoiz baino ozenago oihukatuko dugu Altza, Gora Euskal Herria korrika!*



BAZKIDE TXARTELA - ;HAZTE SOCI@!

Elkarrekin gehiago ahal izango dugu egin. Izan zaitez **ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA**ren bazkidea.

Tú también puedes participar. ¡Hazte soci@ del **ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA**!

La cuota anual es de 1.000 pts / **Urteko kuota kopurua 1.000 pezetakoa da**



Nombre y apellidos / **Izen-abizenak** :

Dirección / **Helbidea**:

Localidad / **Herria**:

Posta Kodigoa .:

Telefonoa:

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA Lau Haizeta, 21-3.ezk. 20017 ALTZA

Euskara eta Altza

ALTZA EUSKALTEGIKO IRAKASLEAK



Gure herrian euskaraz bizitzeko abagunerik ba al dago? Altzan euskararen erabilera non sumatzen da? Hau lortzeko zer egirik behar da?... Eta horrelako beste hamaika galdera egin izan diogu elkarri, oraindik, erantzun garbirik aurkitu ez badiogu ere. Izan ere, b ikuspuntu desberdin eta kontrajarriak izan dira betidanik gure artean bata baikorra eta bestea ezkorra. Esan beharra dago ikuspuntu hauek sortuak direla kaleko egoera ikusi ondoren, biak direla biz dugun errealtatearen islada.

Lehenengo iritziei dagokienez, argi dago gure inguruan garaia batean baino euskara entzuteko aukera gehiago daukagula. Aldaketa hau, haur txikiengan nabaria da, batez ere, eta eskoletako B eta D ereduen hedapenak izan du zerikusirik handia. Gauzak horrela Altzako euskarak izaera gaztea duela esan genezake, haur guzti hauek gure parkeetan eta ikastetxeetan ematen dioten izaera, hain zuzen.

Beste aldetik, baserrietan ere jakin izan da mantentzen gure aintzineko hizkuntza, eremu honi dagokion zenbait berezitasunekin. Hor ere, gorde eta babestu beharreko beste altxorra daukagu.

Era berean, gure eginbeharretatik azpimarratzekoa da guregana euskara ikastera eta hobetzera datorkigun ikasle kopurua handitzen ari dela eta gehingo baten kezka bihurtzen ari dela. Baina jakina, beste gauza asko bezalaxe paisai baikor eta eder horietan badauzkate zenbait laino betz. Lehen aipatu dugu gero eta haur gehiagok egiten duela euskaraz, baina non? Askotan euskararen erabilera ikasgeletan geratzen da soilik, eta hortik kanpo nekez entzuten da. Haur hauek etxean eta kalean bizi duten giroa guztiz eralduna denez, euskara beste ikasgai bilakatzen da eta ez, bere bizimodua. Hau da, matematika edota historia bezala. Arrotza egiten zaie.

Baserritarrei, euskaldun zaharrei, euskaldun berriei, orokorrean edozeini euskaraz aritzea giro txiki batzuetatik kanpo lan neketsua egiten zaie. Gutxi dira euskara dakiten dendariak (harakinak salbu) tabernariak, kutxako langileak eta zer esanik ez zerbitzu publikoetako (anbulategia) langileak. Hainbeste arazo ikustearen ondorioa izango ote da Altzako gazte euskaldunen jarrera? Benetan mingarria eta ulertezina da, hainbat eta hainbat koadriletan erderaz hitzegiteko daukaten joera, euskaraz jakin arren.

Hala eta guztiz ere, ez genuke nahi azken zapora mikatz honekin uztea, horregatik Altzako euskaldun guztiei zera esan nahi genieke: **lehenengo hitza euskaraz izatea eta ahal den guztietan euskara erabiltzea** Horretarako, euskara kaleratzeko Altzako zenbait taldek lanean dihardugu azken hiru urte hauetan ALTZAKO EUSKAL JAIK antolatzen. Hator eta kontatu... Baina euskaraz!*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación